



IMANOL ALVAREZ
IRAKASLE OHIA

Erabilera, norberarengandik hasita

Urteak dira behin eta berriro entzuten dudala ezagutza ez dela aski eta erabilerarako jauzia eman behar dutela gure gazteek. Ados. Egia da gaurko gazte gehienek euren egunerokoan erdarara jotzen dutela gero eta maizago, baita orain gutxi arte euskararen gotorlekutzat hartu izan diren eremuetan ere. Zioak, asko eta askotariakoak. Alde batetik, argi dago gazteek euren sortu behar dutela erabili beharreko mintzaira, inondik inora goitik inposaturikoa ezin dena izan. Bestetik, mendetako egoera diglosikoa dugu, globalizazioak hamaika aldiz biderkatua.

Umeen erreferente nagusiak beti izan dira –eta badira– gurasoak eta, eskolartze-unetik aurrera, maisu-andereñoak. Telebista ere bada nolabaiteko erreferentea, ETBk rol garrantzitsua jokatu duela euskarazko marrazki bizidunak eskainiz. Egun, ordea, ehunka telebista daude, eta euskaraz bakarra eta kaskarra, zeinak, gainera, gero eta haurrentzako saio gutxiago ekoizten dituen. Euskara, hortaz, erabat urtuta gelditzen da erdal itsasoan, kalean bezala baita telebistan ere.

Gaztaroan, gurasoek eta eskolak erreferente izateari uzten diote, eta kanpoan bilatzen dira ereduak: kirolariak, artistak... Ez ahazteko moduko beste kontu bat da gazteak mugatu ohi direla bes-

teek bezala jokatzera, oso taldekoiak baitira. Egoera horretan, oso zaila da portaera-aldaketak kanpotik eragitea. Nik ere ez dakit nola lor litekeen, baina badakit nola seguru ezetz.

Ziur aski, dituzten kanpoko erreferente horietako batzuk, gutxi asko, euskaldunak izango dira, futbolariak edo musikariak kasu. Bada, oso eragin positiboa litzateke normalean euren medioetan euskara erabiltzea. Borondate-falta nabaria da sarri. ETBk ez du laguntzen, erdaraz ere egitera behartzen baikaitu euskaldunok.

Behin, salatu nuen hemen euskal politikari gehienek utzikeria: ia dena erdaraz idatzi, eta gero beste norbaitek euskaratu. Esan bezala, zorigaitzez, utzikeria bera agerikoa da esparru guztietako profesionalengan ere. Esaterako, zinemetan bi euskarazko film egon berri dira ikusgai. Bada, batean, kredituak erdara hutsez. Ulertezina. Onartezina. Bietan, pertsonaiek euskaraz hitz egiten dutenean, erdarazko azpituak; baina ez alderantziz. Hegoaldean, euskaldun gehien-gehienok gaztelania ere ulertzen dugu, Iparraldean frantsesa bezala; ezin uka, berriz, mezu erabat etsigarria gortzen dutela.

Erabilera, bai: norberarengandik hasita. ●



CASTILLO SUÁREZ
IDAZLEA

Galdutako ohiturez

Batek baino gehiagok galdetu dit ea pandemia garai honetan zenbat idatzi dudan. Ezer ez, erantzuten diet denei. Enkargu bat kenduta ez dut ezer idatzi eta irakurri ere ez dut ohikoak baino liburu gehiago irakurri. Denborak beti ez dakar sormena berarekin, bistan da. Ez naiz bereziko ezkorra, baina euforia behar dut nik idazteko, eta debekua beti da poztasunaren kontra. Antzeko zerbait geratu zait kultur emanaldiekin. Hamaika aldiz errepikatu digute kultura segurua dela, eta ziur nago ez dagoela kultur emanaldiak baino gauza hobeki antolatua gorik. Ez dut inor ezagutzen kultur etxe batean kutsa-

tu denik. Hala ere, izugarri kostatu zait askatasuna deitzen genuen hartan hain ohikoa nuena egitea: antzerki edo pelikula bat ikustera joatea. Sarrerak paretaren ondoan hartzen ditut beti, eta neure buruari ikaratia ez naizela errepikatzen diodan arren, etxetik kanpo ez nago inon erabat lasai. Lankide batek esaten zidan lehengoan ez zaiola horrenbeste aldatu pandemiaren geroztik. Niri goitik behera aldatu zait: urtean 30.000 kilometro egitetik aurtan ez dakit 3.000 ere egiten ditudan. Eta nire bizitzari zentzua ematen ziona, kultura alegia, desagertu da eta ez du ezerk ordezkatu. Eta haserre nago horregatik. ●